

## Georges Abdallah amerikarren preso Lannemezanen

Apirilaren 23an Lannemezaneke epaitegiak aztertuko du Georges Ibrahim Abdallah militante libanoar presoaren zazpigarren eskaria baldintzapeko askapena lortzeko. Frantzian 24 urte preso daraman Abdallah-ren kasuak “berunezko urteak” gogorarazten ditu.

**FRANTZIAK, BEREZIKI PARISEN,** 1985-86an paranoia antiterrorista ezagutu zuen. Urte haietan –2001eko iraila baino askoz lehenago– Parisera iristen zena harritzen zen autobus, tren eta metro geltokietan hainbeste polizia eta militar ikusteaz, kontrol zorrotzak, paperontziak kenduta bonben beldurrez, maletak edo motxilak uzteko kontsignak itxita... Sobietar Batasuna indarrean zegoen, Berlinek murrua zeukan erdian, gerrilla ezkertiarrek ari ziren Frantzian eta Alemanian, arabiarren artean ezkertiarrek ziren gogorak eta ez islamistak. Garai hartan Georges Ibrahim Abdallah esatea Frantzian deabrua aipatzea zen.

Aipatu dugun testuingurua arras aldatu da urteotan, baina gaur 57 urte dituen Abdallah-k espetxean segitzen du Lannemezanen, Euskal Herritik hurbil. Bizitarako zigorra ezarri ziotenean 15 urteko segurtasun epea erantsi zioten jubeek. Aspaldi bukatu zelarik epe hori, Abdallah eta bere abokatuek behin eta berriro eskatu dute baldintzapeko askatasuna. Hogeita lau urte egin ditu zuloan, besteren artean Estatu Batuek egin dutelako presio kaleratu ez dezaten. Hain inportantea al da bada gizon hau?

Libanoko iparraldean jaio zen Georges Ibrahim Abdallah 1951n, familia kristau batean. Oso gazterik sartu zen Palestinaren Askapenerako Fronte Popularrean (FPLP frantses

sigletan). OLP mugimenduaren barruko talde marxista honek betidanik gogor fama eduki du. 1978an FPLPko beste militanteekin israeldarren kontra ari zela zauritu zuten lehenbizikoz Abdallah. 1982an Israellek Libano inbaditu zuen, eta “Bakea Galilean” operazioak eragin zituen 25.000 heriotza, 45.000 zauritu, Beirut suntsitza, Sabra eta Chatila errefuxiatu kanpamenduetan falange eskuindarrak israeldarren gainbegiradapean zibil palestinarrek masakratzea, eta beste ehunka militante arabiar desagertaraztea.

Palestina eta Libanoko gerrilleroek mundu osora zabaldu nahi izan zuten erantzuna. Frantziaren kasuan, Libanoko Indar Armatu Iraultzaileek (FARL frantsesez) bi hilketa oso berezi egin zituzten: Charles Ray AEBk Frantziako enbaxadan zeukaten arduradun militarra eta Yakov Barsimantov Israelgo zerbitzu sekretuen (Mossad delakoaren) Frantziako arduraduna.

Handik bi urtera, 1984an, polizia frantsesek Georges Ibrahim Abdallah arrestatu zuten. Paper faltsuak edukitzeagatik. Baina espetxealdia bukatzeaz zuela, amerikanoak presio egiten hasi zitzaizkien agintari frantsesei. Orduan gobernuaren zeudenetatik batek baino gehiagok, tartean François Mitterrand presidenteak berak, aitortu dute presioak oso gogorrak izan zirela, Ronald Reagan bera aritu zitzaizela amenazoka.

Argazki txikiak Georges Ibrahim Abdallah erakusten du Frantziako presondegi barruan; bera askatzeko lanean ari den batzordearen webgunean dago. Irudi handian Estatu Batuek Beirut zuten enbaxada ageri da, 1983ko apirilaren 18ko leherketaren ondoren. Urte haietan Israellek inbaditu zuen Libano, milaka heriotza eta zauritu eta herrialdearen txikizioa eraginez. Gero egoera egonkortzera joan ziren militar atzerritarrei eraso zieten Libanoko erresistentziako talde batzuek, eraso suizidei ekinez. Amerikarren enbaxadakoan 60 pertsona hil ziren, enbaxadorea bera zaurituz. Urri hartan Beiruteko aireportuko kaserna lehertuta 241 militar amerikar eta 58 frantses hil zituzten. Georges Abdallah preso atxikitzekeo presio egitean Washingtingo agintariak gehiago ez ote dira oroitzen Libanon jasandako porrot hartaz Pariseko atentatuaz baino.

Holakoetan beti antolatuta daitekeen zerbait, Frantziako kontraespionaje zerbitzua den DSTko agenteek Abdallahren pisu bat berriro arakatu eta... to!, kasualitatez, aipatu bi hilketetan erabilitako armak aurkitu zituzten bertan. Auzi berria, epai berria, prokuradore edo fiskalak 10 urte eskatu eta epaileek bizitako espetxea ezarri. Hori guztia 1987an gertatuko zen.

Tarte horretan, 1985 eta 1986an, Comité de Solidarité avec les Prisonniers Politiques Arabes izeneko talde ezezaguna hasi zen leherketa itsuak egiten Parisen, eskatuz Abdallah, Anis Naccache –libanoarra baina zerbitzu sekretu iraniarrei lotua– eta Varodjian Garbidjian militante armeniarra askatzea. Liburutegi, kafetegi, postetxe eta kasernetan egindako leherketok 13 heriotz eta 300 zauritu eragin zuten. Psikosia nagusitu zen Parisen. Poliziak zabaldu zuen terroristak Abdallahren bi anaia zirela. Hurrengo urtean iritsi zen Abdallahren kondena.

### CIA eta DSTren beso luzea

Aipatu hiru militante haietatik, Abdallah besterik ez dago gaur espetxean. Gabidjian askatu eta Armeniara bidali zuten Frantziak, Naccache Iranera. 1985-86ko atentatuak? Gaur Frantzian aditu guztiek aitortzen dute Irango zerbitzu sekretuen lana izan zela. Motiboa bazuten: Iran itotzeko Mendebaldeak Irak gerra egitera ani-



matu zuen eta amerikarrekin Frantziak ere Saddam Hussein babesten zuen. Pentsa non dauden gaur geopolitikan mugarriak. Horregatik, arrazoi du Abdallahren abokatu Jacques Vergès-ek dioenean AEBk ez daukatela esku-biderik XXI. mendeko saltsak estali nahian libanoar militante historikoa eta 1982ko gatazkak manipulatzeko.

Abokatua ere, Jacques Vergès, ez da edozein. Ama vietnamdarraren eta aita frantsesaren semea –abizena katalana da– Frantziako Alderdi Komunistakoa izan zen, gero Aljeriako gerran FLNko militanteak defendatu zituen, Aljeria askatuan kargu politikoak eduki zituen, mugimendu ezkertiar armatuetako militanteak defendatu ditu, geroago nazi eta kolaborazionistak ere bai... Bere garaian, 1986an, kontuotaz eran-

tzun zuen ARGIA Vergès-ek. Liburu saila ere badauka idatzita, tartean *La Justice est un jeu* klasiko, tartean atalburuok dituen: “Justizia espektakulu”, “Justizia borroka”, “Justizia joko”,

2007ko urrian egin zuen Abdallahren askapenaren defentsa Vergès-ek Lannemezango epaitegian. Presoaren sustengu taldeko militanteek Interneten daukate jarrita honen hitzaldia: *Pour Georges Abdallah, contre George Bush*. Izenburuak nabarmentzen duenetik, abokatuak demostratzen du Abdallah hainbeste urte pasa eta gero espetxean baldin badago AEBen presoagatik dela.

Hasieratik egin dute bultzada amerinakoek. CIAko zuzendari William Casey-k orduan Barne ministro zen Robert Pandraud zuzenean mehatxa-

tu zuen, geroztik publikatu denez. Gauza bera egin zuen Ronald Reaganek François Mitterrandekin. Horrela, 1999an Lannemezango epaileek hasieran Abdallah aske uztea erabaki zuten arren, amerikanoen presioak ekarri zuen auzia apelazioan ikusi eta gaur arte espetxeko atea ixtea. Amerikanoek israeldarrekin batera jokatzen dute Libanoko geopolitikan, eta bestalde ez daukate ahaztuta han erresistentziak 1983an eragin zizkien kalteak.

Abdallah preso atxikitzeke argudiatu dute kristau marxista zena musulman bihurtu dela, preso islamistekin harremanak dituela, ez dela damutu, kalteordainik ez duela pagatu... Amerikanoek *partie civile* edo akusazio partikularren bidetik sartu dute muturra, biktimen bidetik alegia. Merezi du Vergès-ek horiei erantzunez idatzitako argudioa osorik irakurtzea. “Abdallah etsenplu moduan eduki nahi dute preso, bera espetxeratu eta askoz geroago testuinguru arras ezberdinean jazo diren beste gertakizunengatik”. Eta esaldi borobil hau, historiak gainditu dituen gatazkentzako balio duena: “Amaitu da fiskalen garaia, orain historialariei dagokie mintzatzea”.

Georges Ibrahim Abdallah libratzen badute, Libanon dauzka familia eta irakasle postua zain. Baina epaileek preso handiei egin beharko diete aurre. Filipe Bidart baldintza zorrotzetan libre uzteko eduki dituztenak baino are gogorrago. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

### Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,  
pertsonalizatua,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe  
da gure  
konpromisoa.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani kalea - 20094 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL: 943 420 624